

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Jardueraren
laburpena
2018

Aurkezpena	4
Jardueraren laburpena	6
Publikoak	8
Nork bisitatzen gaitu eta zer pentsatzen du?	8
Balorazioa	10
Ikusle-entzule erabiltzaileak	10
Erakusketak	12
Moda eta Ondarea. Elkarrizketak	12
Transmissions	14
Dotoretasuna. Moda argazkilaritzaren mende bat	15
Hezkuntza programa	17
Hezkuntza programa	17
Moda sentsibilizaziorako tresna gisa	18
Moda integraziorako tresna gisa	20
Balenciaga transmititu, Getariatik mundura	22
Collaborative Unit. Unlocking Heritage	25
Modan espezializatutako eskolak	26
Teknifikazioa: Museoa eta modako profesionalak	27
Museoa, aukera kulturalerako gunea	31
Kultura-programazioa	31
Planak eta esperientziak	32
Lagapenak	33
Komunikazioa	35
Nazioartean eragina handitu nahian	35
Komunikazio tradizionala, datuak eta adierazleak	36
Komunikazio digitala, datuak eta adierazleak	36
Edukiak sortzea audientzia globalerako	37
Informazio ekonomikoa	39
Gardentasuna	39
Egoera-balantze laburtua	40
E-mailza-kontu laburtua	41
Aurrekontuaren likidazioa	42
Informe de auditoria de cuentas anuales abreviadas	43

Cristóbal Balenciaga Fundazioa

Cristóbal Balenciaga Fundazioa 1999an sortu zen, eta F-91 zenbakiarekin erregistratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan. Haren xedea da Cristóbal Balenciaga Eizaguirre jostun-sortzaile getariarraren pertsonak eta nortasunak modan, goi-mailako jostuntzan eta jantzien diseinuan izan duen garrantzia sustatzea, zabaltzea eta indartzea, artearen parte garrantzitsua baita.

Hauek dira Fundazioaren Patronatua osatzen duten instituzio publikoak:

Gipuzkoako Foru Aldundia, bi ordezkariarekin
Eusko Jaurlaritza, bi ordezkariarekin
Kultura Ministerioa, bi ordezkariarekin
Getariako Udala, ordezkari batekin

Fundazioaren Patronatua, gainera, eremu pribatuko beste kide batzuek osatzen dute, besteak beste, АСМЕko ordezkari batek (Espainiako Moda Sortzaileen Elkarte) eta 3 patroï pribatuk..

Fundazioaren ohorezko karguak hauek dira:

Ohorezko presidentek: Espainiako errege-erreginak
Presidente sortzailea: Monsieur Hubert de Givenchy
(2018ko martxoaren 10ean hil zen arte)

Aipatutako helburuak lortzeko, Fundazioaren tresna nagusia Cristóbal Balenciaga Museoa da. Fundazioak zuzenean kudeatzen du, eta 2011ko ekainaren 6an ireki zituen ateak, Getarian.



Aurkezpena

2018an burutu da 2014. urtean hasi zen planteamendu estrategikoa, eta hori lortzeko azken hiru urteetan lan egin da.

Planteamendu horren oinarrian, negozio-eredu bat lortzea zegoen, museoaren arloak modu orekatuan garatzeko aukera emango zuena, bere esparruan nazioarteko erreferente gisa kokatzeko –bai publiko orokorrarentzat, bai espezializatuarentzat, batez ere–, eta, aldi berean, aurrekontuetan nolabaiteko egonkortasuna ekarriko zuena.

Aurreko urteetan, erabakiak hartu dira, aurrerapausoak egin dira eta arriskuak hartu dira eredu horren ezarpena prestatzen joateko. Aurten, 2018an, unea iritsi da apustua gauzatzeko. Praktikan, horrek erakusketa-eredu berri bat ekarri du, ahaleginak bildu baitira diskurtso egonkor berri bat definitzeko eta beste arlo batzuen protagonismoa handitu baita, esaterako, hezkuntzarena eta ikerketarena.

Gainera, 2018ko otsailean, Balenciaga Etxeko azken bildumaren aurkezpenaren 50. urteurrena bete da. Handik gutxira, Cristóbal Balenciagak erretiratzea eta goi jostintzako etxeak ixtea erabaki zuen, garai bati amaiera emanaz Une horretatik aurrera, EISA-Balenciaga janzkera ez zen bilatzen hasi erabilera-balioagatik edo balio sinbolikoagatik, ordura arte bezala, baizik eta balio artistikoagatik, eta, denborarekin, ondare-balioagatik.

Hori dela eta, museoarentzat efemeride esanguratsua zen, eta ondo uztartzen zen harekin atzera begirako diskurtso berriaren aurkezpena. Diskurtso horrek tentsioa areagotzen du moda denaren eta ondarea denaren artean, iragankorra denaren eta erakusketa-eredu berriaren funtsezko osagai gisa etengabe gorde behar denaren artean.

Urteko erakusketa nagusia, *Cristóbal Balenciaga: Moda eta ondarea*. *Elkarrizketak* izenekoak, Museoko Bildumen zuzendariak komisariatu du, UALEko Centre for Fashion Curation zentroko zuzendari Judith Clark museologoaren laguntzarekin; erakusketa horretan diskurtso hori ezarriz, urrats garrantzitsuak egin da erakundearen helburu estrategikoak lortzeko.

Balorazio orokor gisa, esan dezakegu ondo egin dela aurrera planteatutako helburu orokor guztietan, batzuetan itxaropenak gaintuz, eta, gainera, ikusgaitasun handiagoa izan dela, bai estatuan, bai nazioartean, hedabide orokorretan eta modan espezializatutako horietan, eta hori lagungarria izan dela kokapena hobetzeko eta museoaren marka indartzeko. Gainera, ikusten da instituzioak duen ospeak aurrera egin duela publiko espezializatu akademikoaren artean: museoak, ikertzaileak, zientzia-argitalpenak nazioarteko adituen bisitekin, eta museoaren argitalpenei egindako erreferentzia artikuluetan eta biltzarretan.

A2018ko ikasturteko ekintzak eta gertaera garrantzitsuak

- Bisitarien kopurua %4 handitu da aurreko urtearekin alderatuta; 53.000 bisitari baino gehiago izan dira, eta ezarritako helburua bete da, nahiz eta museoa itxita egon 8 astez, erakusketaren aldaketa dela-eta. Hezkuntza-programaren erabiltzaileak ere gehitzea eta publiko hori fidelizatzea.
- Cristóbal Balenciaga Moda eta ondarea (gailu mugikorretarako argitalpen eta aplikazioarekin batera) diskurtso egonkorraren erakusketak oihartzun positiboa izan du, hedabide espezializatuetan eta museoaren sektoreko profesionalen artean.
- Museoko bildumetarako sarrera berriak: 80 kultura-ondasun eta epe luzeko 15 gordailu.
- Lankidetzak emankorrek Cristóbal Balenciaga Udako II. Eskola merkaturatzean, EHUREkin, Donostiako Sustapenarekin eta Kutxa Fundazioarekin lankidetzan.
- Second Canvas Europako proiektuan parte hartzea, eta eduki eta euskarri digital berriak sortzeko aukera.
- Nazioarteko modako hezkuntzan aritzen diren erakundearen hezkuntza-proiektua amaitzea, *Transmissions* erakusketarekin, irakasle eta ikasle hauekin: The Royal Danish Academy of Fine Arts (Copenhagen, Denmark); Central Saint Martins-University of the Arts (London, UK); Iceland Academy of the Arts (Reykjavik, Iceland); Shenkar College of Engineering, Design and Arts (Ramat Gan, Israel); Seika Kyoto University (Kyoto, Japan); Parsons the New School of Design (New York, USA).
- Dokumentazio Zentrorako eta Museoa Sortzeko proiektuaren edukien diseinu- eta aurrerapen-fasearen hasiera, London College of Fashion-ekin (UAL) lankidetzan eta Eusko Jaurlaritzak proiektu berrietarako kudeatzen duen Creadis 3-Smart Creative Districts programaren laguntzarekin.
- Bartzelonako Disseny Museoarekin lankidetzan aritzea haren bilduma *Dotoretasuna. Moda argazkilaritzaren mende bat* erakusketan jartzeko.
- Lehen urratsak museoaren Aholkulari Batzordean, proposatzen diren bost plazetatik hiruren izendapenarekin eta onarpenarekin.
- Hitzarmena Kutxa Fundazioarekin, bigarren urtez jarraian beharizan espezifikoak dituzten publikoaren programa garatzeko.
- Estrategia Digitaleko Plan baten eta Finantzaketa Eredua Dibertsifikatzeko Plan baten definizioa abiaraztea.
- Eragin positiboa irudian eta ospaean, bisitarien gogobetetze-inkestean (9,46/10eko gogobetetzea) eta kanpoko inkestean bermearekin (Google my Business 4,2/5, Trip Advisor 4,5/5, minube 5/5, Facebook 4,8/5), eta hedabideetako iritzi-analisien bidez (inpaktuak, balorazioak).
- Sortutako eragin komunikatiboa, 2m eurotik gorakoa da, eta museoaren presentzia instituzional nabarmena du euskarri desberdinetan.
- Urteko pertsonaiari emandako saria, Unión Editorial taldearen *Fuera de Serie-Expansión* argitalpenean, Moda kategorian.

Jardueraren laburpena 2018



Moderrak orri eta alaitasun behar di, orri dienerak, edukitza formak.
modernization, modern humanism in Basque countries.

Un buen modista debe ser arquitecto para la forma, poeta para el color, músico
para la armonía y filósofo para la tradición.

A good couturier must be an architect for design, a sculptor for shape, a
poet for colour, a musician for harmony and a philosopher for inspiration.

C. Balenciaga

Publikoak



Nork bisitatzen gaitu eta zer pentsatzen du?

	2015	2016	2017	2018	Aldakuntza
Urtarrila	1.190	2.082	1.113	2.105	89%
Otsaila	1.142	2.104	1.830	201	-89%
Martxoa	2.144	3.557	2.214	2.251	2%
Apirila	3.391	3.481	4.379	6.060	38%
Maiatza	4.563	4.663	4.382	6094	39%
Ekaina	3.954	4.068	5.034	5.684	13%
Uztaila	5.131	5.205	7.109	5.823	-18%
Abuztua	7.203	6.846	10.198	9.384	-8%
Iraila	3.712	4.217	4.769	4.791	0,4%
Urria	3.421	4.704	5.776	5.432	-6%
Azaroa	1.784	1.884	2.563	3.137	22%
Abendua	2.104	2.274	1.983	1.913	-3%
	39.739	45.085	51.350	53.060	4%

Bisitari- eta erabiltzaile-kopuruaren bilakaerak goranzko joera izaten jarraitzen du azken urteetan; zalantzarik gabe, uda da oraindik jarduera gehiago biltzen duen aldia, baina goi-denboraldia apiriletik urrira arte luzatzen ari da, bi hilak barne. Azken urtean, aurreko urtean baino %4 gehiago izan da.

Museoko erakusketa-edukien bisitarien profilarik dagokionez, urtero egiten den publikoaren azterketak emaitza hauek ditu:

Bisitarien unibertsoari buruzko sarreraren salmentan bildutako datuen arabera, bisitarien %34 gizonezkoak izan ziren, eta gainerako %66a, emakumezkoak; beraz, aurreko urtean atzemandako feminizazio-joera alderantzizkoa izan da (%25 gizonezkoak izan ziren 2017. urtean eta %30, berriz, 2016. urtean).



- 1. Haur eta gazteak
- 2. Helduak
- 3. Ikastaroak
- 4. ??????
- T. Guztira

Inkestatutako % 8 18 urtetik beherakoak ziren. % 9k 19 eta 25 urte bitartean zituen, % 13k 26 eta 40 urte bitartean, eta % 40k 41 eta 55 urte bitartean. % 15ek 56 eta 65 urte bitartean zituen, eta 65 urtetik gorakoak % 15 ziren. Bisitari-kopuruak gora egin du 40 urtetik beherako taldean, baina moda 48 urtean kokatzen da. Denboraldiei dagokienez, udan, ikusleak gazteagoak dira (familiak), eta udaberrian eta neguan, berriz, 56 urtetik gorakoak askoz ugariagoak dira.

Inkestatutako % 79k goi-mailako ikasketak ditu, eta % 67 beste museo batean (Guggenheim Museoa, MACBA, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Museo del Prado, Louvre) egon da azken 3 hilabeteetan.

Eguneko planari dagokionez, kasuen % 60tan museoa plan zabalago baten parte da, Getarian jatea barne hartzen duena –% 30 lehenago edo geroago–. Inkestatutako % 35 Getariara etortzen da museoa ikustera, eta, ondoren, paseatzera, zerbait hartzera edo Zarautz eta Zumaia bisitatuzera.

Jatorriari dagokionez, inkestatutakoan % 52 atzerritarrek ziren, batez ere Frantziakoak (% 21). Bestetik, inkestatutakoan % 24 EAEkoak dira, eta horien artean gipuzkoarrak nabarmentzen dira (% 12). Bisiten % 24 Espainiakoak dira. Inkestatuen jatorrian maiz agertzen diren beste erkidego batzuk Madril, Katalunia eta Nafarroa dira. Aurreko urtearekin alderatuta, nabarmentzekoa da atzerritarren kopurua hazi egin dela, Estatuko bisitarien gainetik, eta % 50 gehiago da lehen aldiz.

Bisita egiteko moduari dagokionez, bisita hauek nabarmentzen dira: bikotea (% 40) eta familiakoa (% 24), lagun-taldea (% 16) edo talde antolatua (% 12). Bisitari indibiduala ez da hain ohikoa (% 8). Aurreko urtearekin alderatuta, taldeko bisiten tipologia dibertsifikatu egin dira. Denboraldi dagokionez, udan % 40 baino gehiago da familiako bisita.

Balorazioa

Hauek dira museoaren alderdirik baloratuenak: orduetaria (4,6/5), barne-irrigarritasuna, jasotako tratua, aretoetako azalpena; gutxien baloratutakoak, berriz, hauek: erosotasuna, prezioa eta sarbideak eta komunikazioak (4,22/5).

Nabarmentzekoa da prezioaren balorazioa, lehen aldiz, 5etik 4 puntu baino gehiago izan baitu, eta ez baitago 4tik beherako baloraziorik.


Balorazio orokorra 4,66/5ekoa da, 2016ko balorazioa baino zertxobait txikiagoa (4,65), eta 2015ekoa (4,35) eta 2017koa (4,45) baino handiagoa.

Inkestatutakoan % 100ek esan du bisita gomendatuko lukeela.

Dendari dagokionez, tokiko espazioaren balorazioa (4,6/5) eta jasotako tratua (4,3/5) nabarmentzen dira. Eta bisita gidatuetan, bereziki balioesten dira hizkuntzak eta gidariaren tratua (4,3/5); ez hainbeste haren jakintza espezializatuak (3,7/5).

Ikusle-entzule erabiltzaileak

Hezkuntza-programetako jarduerak erabiltzen dituzten ikus-entzuleei dagokionez, bilakaera positiboa izan da, bai eskolako hezkuntza arautuko ikastetxeentzat, bai moda-sentsibilizaziokoa haur, gazte eta familientzat, helduentzat eta premia bereziak dituzten pertsonentzat, bai profesionalentzako programa. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 5 inguru handitu dira, museoko erakusketetan izandako ikus-entzuleak baino gehiago.



Erakusketak

Museo monografiko edo autore-museo gisa, CBMren erakusketa-programak erreferentzia-testuinguru bat sortu nahi du Cristóbal Balenciagaren ibilbide artistikoa, haren eraginak eta legatua ulertzeko.



© Cristóbal Balenciaga Museoa/Idoia Unzurrunzaga

Moda eta Ondarea. Elkarrizketak

2018 / MARTXOA 24 – 2019 / URTARRILA 27

Balenciaga Etxea itxi zenetik 50. urteurrena eta Kultura Ondarearen Europako Urtea ospatzearekin batera, museoak hausnarketa egin nahi du bere garaian moda izan zen –esklusiboa eta oso gutxi batzuen esku– eta gaur egun guztion ondarea den zerbaiti buruz. Eta nola garatu den prozesu hori Balenciaga sortzailearen ibilbide berezitik eta modaren historiari egin zizkion ekarpenetatik, bereziki, siluetaren iraultza deritzogunetik, sortzailearen bizitza-, gizarte- eta kultura-testuingurutik prozesu hori azaltzen baitu, eta mundu osoko pertsona eta instituzio independente ugari partekatutako iritzi (konbentzio) honetatik: behin ekoizpena tailerretan bukatuta, haren lanek bildumatu, gorde, interpretatu eta erakutsi behar ziren.

Horretarako, lehenengo aldiz, diskurtso kronologiko eta ebolutibo bat planteatu da museoko erakusketa-aretoen inguruan, Bildumen Artxiboaren eta museoaren lana gogorarazten duen museografian murgilduta, ondare bihurtzeko prozesu horretan eragilerik garrantzitsuena baita.

Erakusketa honek *Elkarrizketak* azpititulua izan du; izan ere, bigarren asmoa Balenciagari buruzko ikerketak, erakusketak, literatura eta argazkia aipatzea zen, lagungarriak izan baitira artxiboko objektuen gainean balio ez-materialeko geruzak sortzeko (interpretazioak, irudiak, elkarketak). Eszenaratzeak, beraz, erreferentzia bisualak eman dizkie erreferente kontzeptual horiei, artisautza eta abangoardia batzen dituen diseinu batean. Diseinu hori exhibition maker eta Londresko UALeko Center for Fashion Curation-eko zuzendari-kidea den Judith Clark-en lanaren bereizgarria da.

Erakusketak eduki osagarriak izan ditu, argitalpen batean eta euskarri mugikorrerako eta doako deskargarako aplikazio batean jasoak, biak lau hizkuntzatan.

© Cristóbal Balenciaga Museoa/Idoia Unzurrunzaga



Aldi baterako erakusketak

Aldamar jauregiko aretoetan, artista honen periferiako beste eduki batzuk eta bere lanbidea erakutsi nahi dira, irakurketa gehiago edo berriagoak egin ahal izateko.

Transmissions

2018 / EKAINA 14 – IRAILA 2

Cristóbal Balenciaga Museoak hezkuntza-proiektua jarri du abian jostunari buruzko jakintzak transmititzeko diseinatzaileen belaunaldi berri bati, eta horren ondorioa da, hain zuzen, erakusketa hau, hezkuntza-ekintza horren emaitzak erakusten dituena.

Nazioarteko 7 eskolatako ikasleek study trip bat egin dute museora, artxiobotako pieza batzuk aztertu dituzte, eta museoak proposatutako ildoak ikertu dute, «Balenciaga eta siluetaren iraultza», ikastetxeen ikasketaprogramen barruan eta curriculum-eduki gisa. Eskolen eta museoaren ebaluazio bateratuaren ondoren, lan onenak aukeratu ziren, hautatutako ikasle bakoitzaren sorkuntza-prozesuarekin batera aurkezteko.

2018ko udan aurkeztu zen erakusketa horrek nazioarteko talentu gazteen sormena erakusten du, eta, aldi berean, balioesten ditu museoak hezkuntzaren arloan duen garrantzia eta ekarpena, 28 hautatuen eskutik. Lau esparrutan egituratu da erakusketa: *Tailoring Revisited*, *Experimenting with Prints & Materials*, *New Shapes* eta *Extreme Siluettes*.

Prozesu osoa azaltzen duen mini-site bat ere izan da:
www.cristobalbalenciagamuseoa.com/transmissions

© Cristóbal Balenciaga Museoa / Iñigo Ibáñez



Dotoretasuna. Moda argazkilaritzaren mende bat

URRIA 9/2018 – URTARRILA 27/2019

Bartzelonako Disseny Museoaren modako argazki-bilduma Cristóbal Balenciaga Museoko Aldamar jauregira joan da. Helburua da kalitate handiko edukiaz gozatzea eta antzeko ikus-entzuleei eskaintzea, nahiz eta ez izan nahitaez museoko ohiko bisitariak.

Erakusketak 7 arlo ditu: *Argazkigintza eta Moda, Modako argazkigintza izan aurretik, Ikuspegi berria, Barnealdeak eta Kanpoaldeak, Mugimenduak, Fantasiak, Identitatea eta Diferentzia, eta Paisaiak.*

Erakusketan, publikoak dibertsifikatu nahi dira, eta, modaz gain, argazkilaritza gustuko duten bestelako ikusleak erakarri nahi dira, eta museoen arteko lankidetzak aztertu; kasu honetan, Museu del Dissenyrekin.




© Oriol Maspons, 1966
© Manuel Outumuro, 1995
© Juan Gyenes, 1950
© Antoni Bernard, 1968



Hezkuntza programa

Hezkuntza-programaren barruan, eduki-mota horiek finkatu eta zabaldu egin dira, eta erabiltzaileen kopurua handitu, formatuak etengabe ebaluatu eta berritu dira, eta proposamen berriak sartu dira. Hezkuntza-programek harrera ona, kalitate handia eta hazteko potentzial handia dituzte, eta erabiltzaileen gogobetetze-maila 9,4/10etik gorakoa da, batez beste.



IKASTETXEENTZAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAREN GAIKAKO ARDATZAK

Gorputza eta silueta

Formak eta figurak
Kode sozialak
Aniztasuna

Jasangarritasuna

Artisautza
Material naturalak
Kustomizatzea eta birziklatzea

Arte, zientzia eta teknologia

Matematika eta geometria
Ehungintzako teknikak
Elektronika sortzailea

Moda jakintzarako tresna gisa

Eskola-programa ikastetxeei zuzendutako programa da, eta hezkuntza-ziklo eta LH guztietarako jarduerak proposatzen ditu, integratuta eta eskola-curriculumarekin lotuta. Besteak beste, eskaintzak helburu hauek ditu.

- Ikastetxeek jarduera erabilgarriak eta aberasgarriak sartzeko aukera eskaintzea, ikasturteko plangintzan ikasgelatik kanpo, hurbileko eta eguneroko kontzeptuak landuz, hala nola janzkiak, eskolako curriculumean txertatutako beste jakintza eta kontzeptu konplexuago batzuk bideratzeko.
- Kultura-ondarearen balorazioa sustatzea, eta, bereziki, Cristóbal Balenciagaren sormenetik datorrena, haren lanekiko harreman zuzena bideratuz, ikasleei laguntza eta orientazioa emanez artelanei esleituko esanahia bilatzeko eta beren jakintza eraikitzeko.
- Ikasleei materialak, koloreak, formak, teknikak eta joskintza lanbidearekin eta jantziekin zerikusia duten beste alderdi batzuk ezagutaraztea, beren gustuak garatzeko eta eguneroko bizitzan ehun-lanak eta -sorkuntzak bereizteko eta balioesteko.

Programaren seigarren urtez jarraian, eta jardueren berrikuspen eta doikuntza batzuen ondoren, esan daiteke 2017-2018 ikasturtean eskaintza finkatu egin zela egiturari eta edukiari dagokienez. Oso egokitzat jo zen programa antolatzea hezkuntza-etapetako eskola-curriculumarekin koherenteak ziren eta erraz hautemateko modukoak ziren ardatz eta gai batzuen inguruan, horrek bide ematen baitzuen jardueren eta curriculumeko edukien artean korrelazio zuzena izateko.

Moda sensibilizaziorako tresna gisa

Hezkuntza ez-formalaren tipologian sartzen diren jarduerak araututako hezkuntzatik kanpo egiten direnak dira, eta ekimen askotarikoak eta ludikoagoak dira. Bide ematen dute museora modu desberdinean hurbiltzeko eta beste metodo bat eskaintzen dute edukiak asimilatzeke, besteak beste, modako prozesu inplizituaren balioaz, haren izaera artistiko eta sortzaileaz eta kontsumo iraunkorreko erantzukizunaz sensibilizatzeko.

Kategoria honetan sartzen dira familientzako ekintzak, aisialdiko taldeetako umeentzako ekintzak eta helduentzako ekintzak, hainbat ehun-teknikaren ingurukoak. Urtean guztira 6 tailer antolatu dira familientzat, oporretarako kanpamenduak izan dira, eta udan harrera egin zaie haur eta gazteen taldeei. Hona hemen ekimenik esanguratsuenak.

- EHUN-SERIGRAFIA. Ekimen honek serigrafia aurkeztu zien parte-hartzaileei, eskuz estanpatzeko metodo gisa. Familiak pantaila bat manipulatu zuten, eta beren diseinua sortu eta estanpatu zuten.
- IRAZKIA ETA BILBEA. Jarduera honek ehunera hurbiltzea proposatu zuen, zoom gisa, elkarri lotuta egindako sorkuntza-lanak eginez. Parte-hartzaileek irazkia eta bilbea lotuz jantziak egin zituzten, ehun-prozesu batean bezal


© Cristóbal Balenciaga Museoa/Maushaus



- E-HUNAK ETA PROGRAMAZIOA. Tailer honetan, ehun elektronikoetara hurbildu, eta elektronikarako eta blokeetan oinarritutako programazio bisualerako oinarritzko hastapenak azaldu ziren. Parte-hartzaileek ikasi zuten zirkuitu bat eraikitzen, material berriekin esperimentatzen eta elektronika ehunetan txertatzeko aukera ematen duten sormenezko potentzialak aztertzen. Ekimenean, familiako kide guztiek aukera izan zuten modu aktiboan eta taldean parte hartzeko, eta argitasun- eta soinu-osagarrien diseinua proposatu, eta haien funtzionaltasunaz eta programazioaz hausnartu zen.
- HUTSIK. Aire beharrezko elementua da Balenciagaren lana ulertzeko. Hutsune hori gero eta garrantzitsuagoa da haren lanean, eta tailer honek horretan jarri zuen arreta. Patroi desberdinetatik abiatuta, bilgarriak eraikitzea proposatu zen hainbat silueta lortzeko, haietan, materialen gardentasunari esker, gorputzaren eta jantziaren arteko espazioa agerian geratuko baitzen. Argi-joko baten azpian, proiektatutako itzalen efektuak eta sortutako formak agertu ziren.

Berrikuntza gisa, abenduan, hain zuzen, abenduaren 15ean, Santa Luzia egunaren bezperan, hau da, jostunen zaindariaren garaian, museoak elkarketa familiarra proposatu zuen, jostintza, musika eta tradizioen inguruan, hainbat belaunaldiren jakintzak eta bizipenak goatzera eta partekatzen animatzeko.

© Paola Guimerans



© Cristóbal Balenciaga Museoa / Iñigo Ibáñez



Moda integraziorako tresna gisa

Premia bereziak dituzten publikoentzako programak helburu hauek ditu.

- Museoari eta haren edukiari erantzutea eta ahalik eta talde gehienek eskura jartzea, eta, batez ere, berariazko dinamikak behar dituztelako bertako azalpen- eta hezkuntza-proposamenak eskuratzeko zailtasunak dituztenen esku.
- Harreman eta lotura egonkorrak ezartzea hainbat talde eta/edo komunitarekin, haien ezaugarrien eta beharren berri izateko, eta, hala, haiei erantzun egokia eman ahal izatea, ekintza integratzaileak definituz eta berariazko programak sortuz bakoitzarentzat.
- Kultura-ondarea erabiltzea, eta, zehazki, Cristóbal Balenciagaren moda eta sorkuntzak, kolektiboen gaitasunak sustatzeko tresna gisa, eta ezagutza pertsonal handiagoa izateko.

2018an, arlo hauetan egin da lan:

- Mugimenduen dibertsitate funtzionala duten pertsonak. Museoaren bisita eta egokitutako bainua hondartzan. Museoak, Gurutze Gorriaren laguntzarekin, mugikortasun murriztua duten pertsonentzako plan bakarra egin zuen, bigarren urtez jarraian. Esperientziak barne hartzen ditu museoaren bisita gidatua eta bainu lagundua Getariako Malkorbe hondartza politeko ur lasaietan. Bisita-formula hori udako hilabeteetan gauzatu zen, *Murgil zaitez!* izenburupean (ekaineko bigarren hamabostaldia, uztaila, abuztua eta iraileko lehen hamabostaldia).

© Cristóbal Balenciaga Museoa



© Cristóbal Balenciaga Museoa / Cruz Roja



- Dibertsitate bisual funtzionala duten pertsonak.
Bisita eta ukipenezko hurbilketa.
Museoaren funtsak kontserbatzeko eta erakusteko baldintzek argiztapen-maila txikia eskatzen dute, eta hori oztopo da piezak hautemateko, batez ere dibertsitate bisualen bat duten pertsonentzat. Ibilbide gidatu honen osagarri, ukipenezko hurbilketa bat egiten da ehun-lagin batera eta erakutsitako lanen antzekoak diren erreprodukzioetara, erabilitako teknikak eta jostunak aurkeztutako proposamen formal berritzaileak ulertzen laguntzeko. 2018an, bi pieza berri gehitu zaizkio ukimen-erreprodukzioen bilduma honi. *Dotoretasuna. Moda argazkilaritzaren mende bat* erakusketak, gainera, erakusketan dauden argazki batzuen erliebezko eta braillezko orriak ditu erakusketako ibilbidean, eta haien audio deskribapenak ere bai.
- Entzuteko dibertsitatea duten pertsonak.
Entzuteko dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako ibilbide hau zeinu-hizkuntzako interprete baten eskutik egiten da. Honen onura har dezakete bai aurretik antolatutako pertsona-taldeek, bai Hezkuntza Sailak antolatutako edozein jardueratan parte hartzen dutenek, hala nola eskola-, familia- eta talde-ekimenetakoek.
- Dibertsitate psikikoa eta intelektuala duten pertsonak.
Bisiten eta tailerren bidez, hurbilketa esperimentalak bultzatu nahi da, eta tresna erabilgarri bihurtu nahi da muga psikikoak eta intelektualak dituzten pertsonentzat eta haiekin lan egiten duten profesionalentzat. Berariaz nabarmendu nahi da museoak eta museoaren edukiak duten ahalmena beren lanean aplikatzeko moduko tresna gisa. Erakusketako ibilbidea osatzeko, tailer praktikoa egingo da, parte-hartzaileen sentsibiltatea eta adierazteko gaitasuna sustatzeko. Egokitutako bisitak, bisita-tailerrak eta baliabide horiek behar dituzten kolektiboen eskura jarritako baliabideak doakoak dira erabat.

Orain arte, 197 lagunek hartu dute parte proposatutako formuletan, eta emaitza eraginkorra eta oso ona izan da.

Era berean, aipatu behar da deskribatutako programa eta ekintzak ezin izango lirakeela gauzatu museoako edukien transmisio egoki eta zuzenerako trebatu eta gaitutako bitartekaritza-talderik gabe, talde horrek baititu kolektibo bakoitzaren ezaugarriak eta berezitasunei erantzuteko behar diren tresnak eta horiek inguratzen dituen mundua ulertzeko eta interpretatzeko modua. Hala, museoak bere bitartekaritza-talde egonkorraren prestakuntza programatu zuen, dibertsitate funtzionala duten pertsonen interakzio- eta arreta-jarraibideetan. Bask for All aholkularitza-enpresa espezializatuak parte hartu zuen berariazko prestakuntza hori ematen.



© Cristóbal Balenciaga Museoa/
Kyoto Seika University

Balenciaga transmitzea, Getariatik mundura

Balenciagaren eta Balenciagari buruzko ezagutza zabaltzeko beharra museoaren hezkuntza-xedearen muinean dago. Helburu hori du ardatz *Transmissions* programak.

Transmissions hezkuntza- eta sorkuntza-proiektuak munduko moda-diseinuko eskolarik garrantzitsuenetako batzuekin lotu zuen museoa: Central Saint Martins (UAL, Londres, Ingalaterra), The Royal Danish Academy of Fine Arts (Kopenhage, Dinamarka), Iceland Academy of the Arts (Reykjavik, Islandia), Shenkar College of Engineering, Design and Art (Ramat Gan, Israel), Seika Kyoto University (Kioto, Japonia) eta Parsons The New School of Design (New York, AEB). Gainera, Bilbao International Art & Fashion plataformak (Bilbo, Espainia), sortzaile berrientzako prestakuntza-programaren bidez, 12 euskal diseinatzaile txertatuz hartu zuen parte proiektuan.

Proiektua murgiltze-prozesu bat da Cristóbal Balenciagaren filosofian, teknikan eta testuinguru biografikoan. 2017/2018 ekitaldian, gaia «siluetaren iraultza» izan zen, eta, amaieran, museoa bisitatu, eta museoko artxiboko zenbait pieza zuzenean ikusi ahal izan ziren. Abiapuntu horretatik, parte-hartzaileek beren ikerketa-, esplorazio- eta sorkuntza-proiektua garatu zuten 8 astez. Ondoren, proiektu hori hautatu, eta haren zabalkundea egin zen.

Museoak 2016. urteaz geroztik sustatu du proiektua, eta lehenengo edizioetan Central Saint Martins-UAL-ek bakarrik hartu zuen parte. Balorazio ona izan zuten esperientzia pilotu pare bat egin ondoren, antzeko dinamika bati jarraituz, 2017/2018 denboraldian, ekintza-esparrua zabaldu zuen, 6 eskola txertatuz eta guztira 150 ikasle parte-hartzaile hartuz.

Esan bezala, proiektuak alderdi batean jartzen zuen arreta, eta alderdi hori, zalantzarik gabe, Cristóbal Balenciagak modaren historiari egin dion ekarpenik nagusietako bat da: emakumearentzat silueta berri bat sartzea. Ordura arte ezarrita zegoenarekiko hausturak indarra hartu zuen, linea jariakorrak eta bolumen harrigarriak zituzten diseinuekin. Azken batean, garai bat markatu zuten lerroak, ereduak eta diseinuak izan ziren, bere garaiari aurrea hartu zion ikonoklasta baten behin betiko eklosioa.

Proiektuak, besteak beste, helburu hauek zituen:

- Cristóbal Balenciagaren jakintza, balioak, teknika eta sorkuntza-ondarea transmititzea diseinatzaileen belaunaldi gazte bati, haren lana zuzenean aztertuz.
- Cristóbal Balenciagaren proposamen iraultzaileak eta haren esperimentazio konstruktibo eta formal erabakigarria erakustea, sorkuntza berriko iturri gisa, eta tresnak hartzea emakumeen siluetaren iturriak, joerak eta bilakaera ikertzeko, dokumentatzeko eta aztertzeko, eta baliabideak eskuratzea berrikuntza formalean oinarritutako kontzeptuak eta diseinuak garatzeko.
- Siluetak egokitzeko eta interpretatzeko sormenezko esplorazioan eta sistemetan sakontzea, irudimenez erabiliz forma eta bolumenak, irudiak eta estetikak, eraikuntzak eta teknikak, materialak eta koloreak, eta Cristóbal Balenciagaren lana adibide gisa erabiliz.
- Look baten sorrera esperimentazio-lurralde gisa erabiltzea, siluetak interpretatuz ideiak komunikatzeko gaitasuna ezartzeko eta garatzeko. Ikasleek sketch book bat prestatu eta aurkeztu beharko dute inspirazio materialarekin eta amaitutako arropa bat ere bai.

Proiektua hainbat fasetan antolatu zen:

- 1. Fasea. Study trip museora (2017ko iraileko bigarren hamabostaldia, urriko lehena). Parte hartu zuten eskola guztiek bisita bat antolatu zuten uneko erakusketa ezagutzeko eta bildumako pieza-sorta handi bat aztertzeko, proiektuaren gai-esparruari lotuta, Igor Uria bilduma-zuzendariarekin batera. Europan oinarritutako eskolek irailaren bigarren hamabostaldiaren eta urriaren lehenengoaren bitartean egin zituzten bisitak, eta guztira 68 ikasle eta 8 irakasle izan ziren. Europako mugetatik kanpo zeuden, eta, beraz, logistikaren eta ekonomiaren aldetik, joan-etorria askoz ere konplexuagoa zuten eskolei zegokienez, aukera eman zen ikastetxe bakoitzeko irakasleak bakarrik joan zitezenez museora. Hortaz, topagune bat antolatu zen, proiektuaren edukiak lantzeko eta

© Emil Bang Hoffmann
Royal Danish Academy of Fine Arts



© Norea Persdotter Wallstörn
Iceland University of the Arts



© Maya Hacoheh
Shenkar, Engineering, Design, Art



museora egindako bisitan landutako kontzeptuen eta edukien berri emateko ardura zuten irakasleekin. 2017ko irailaren 26an egin zen saiora 5 irakasle joan ziren.

- 2. Fasea. Ikasleen bakarkako lanaren garapena (2017ko urritik abendura). 2017ko urritik abendura arte, eskola parte-hartzaileek ikasleen banakako proiektuetan lan egin zuten. Guztiek denbora bera izan zuten lan horiek egiteko, zehazki 8 aste, eta epe hori bukatutakoan, proiektuak aztertze eta ebaluatzeko behar zen materiala aurkeztu behar izan zuten.
- 3. Fasea. Baterako erakusketa (2018ko urtarriletik martxora) osatuko zuten azken lanen ebaluazioa eta hautaketa. Ikasleen tutoretzan parte hartzen zuten irakasleek eskoletan bertan egindako lehen hautapenaren ondoren, bigarren eta azken hautaketa egin zen, erakusketako proposamenean parte hartuko zuten proiektuak aukeratzeko. Lan horien balorazioan eta hautaketan parte hartu zuten hala eskoletako irakasleek nola museoko langileek, bai eta proiektuaren aholkulari laguntzaile Elisa Palominok ere.
- 4. Fasea. Emaitzak baterako erakusketa batean aurkeztea museoan (2018ko ekaina). Ekainaren 15ean, baterako erakusketa bat aurkeztu zen jendaurrean, proiektutik ateratako lanik nabarmenenak bilduta, 26 gehienez. Erakusketa motibazio-iturri handia izan zen parte hartu zuten eskolentzat eta ikasleentzat, eta, aldi berean, aukera paregabea izan zen ezagutzera emateko nazioartean ospe handia duten eskolekin lankidetzan egindako hezkuntza-lana. Hala, erakusketak zehatz jasotzen zuen museoan gordetzen den legatuaren, transmisioetan parte hartutako irakasleen irakurketen eta sortzaileen belaunaldi berri baten lanaren eta talentuaren arteko elkarrietzeta.

Proiektuaren eta erakusketaren aurkezpenarekin batera, hitzaldi edo *round table* bat egin zen, eta, horri esker, parte-hartzaileek aukera izan zuten beren esperientzia eta egindako prozesuaren balorazioa azaltzeko eta partekatzeko, ekitaldian ziren gainerakoekin.



© Cristóbal Balenciaga Museoa/Iñigo Ibáñez

Collaborative Unit. Unlocking Heritage

London College of Fashion-en *Collaborative Unit* programaren barruan, lan-talde bat proposatu, onartu eta eratu zen, museoaren etorkizuneko Dokumentazio Zentroaren inguruko hurbiltze-proiektua garatzeko.

Izan ere, museoaren ustez, beharrezkoa da zaintzen dituen bildumen kontserbazioa, baina, aldi berean, gurea bezalako erakundeen berezko betebeharra da ondare hori irekitzea eta eskuragarri jartzea. Aukera egon behar du teknika, estetika eta jakintza transmititu ahal izateko, baina, sarritan, zabalkunderik tradizionalenak ez dira aski publiko guztien interesa eta jakin-mina asetzeko, bereziki, publiko espezializatuarena.

Hala, museoak oraindik erabaki gabe dauka bere edukiak irekitzeko eta publiko espezializatuaren eskura jartzeko era (diseinuko profesionalak, akademikoak, ikasleak eta abar barnean hartuta) eta horietara hurbiltzeko eta sakontzeko modua. Premia hori ez da lantzen inguru geografiko hurbilean, ez baitago zentro espezializaturik edo erreferentziako liburutegirik modu-diseinuan.

Horiek horrela, museoak asmoa azaldu zuen ikerketarako, diseinurako eta sorkuntzarako gune bat abian jartzeko museoaren multzoaren barruan, bere ehungintza-, bibliografia- eta dokumentazio-ondareari lotutako zerbitzu eta edukietarako sarbidea emanda. Ildo horretan, laguntzeko eskatu zen, eta 4 ikaslek parte hartu zuten proiektu bat diseinatzen eta planifikatzen.

Prozesuaren zati gisa, aukeratutako taldeak estrategia bat garatu zuen, jostunaren ondareari lotutako ikerketa-arlo bat hobekien islatuko zuten edukiak hautatzeko, baina, aldi berean, modaren historia eta, oro har, goi joskitza aintzat hartuta. Era berean, taldeak espazio egoki bat diseinatu behar izan zuen mota horretako zentro bat hartzeko, bai eta zentro horren kudeaketa- eta komunikazio-plana ere, unitate bereizi bat balitz bezala.

Kontuan hartu beharreko elementuak behar bezala aztertzeko eta hautatu beharreko gaiak zehazteko, taldeak elkarrizketak eta focus group-ak antolatu eta egin zituen industriako, esparru akademikoko eta beste esparru batzuetako profesionalekin Londresen. Eta museoa 3 egunez bisitatu zuen (apirilaren 16tik 18ra), zentroa hartzeko egokiak izan zitezkeen espazioak in situ aztertzeko, museoaren funtsak baloratzeko, tokiko beharrak aintzat hartzeko, etab. Ikasleek gure ingurunera egiten duten bidaiari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko, instalazioetara egin ohi diren bisitez gain, eta zalantzak argitzeko eta proiektuan sakontzeko hainbat barne-bilera antolatu ondoren, topaketak egin ziren tokiko eragileekin.

Modan espezializatutako eskolak

Cristóbal Balenciagaren figuraren eta obraren azterketan sakontzeko eta, era berean, irakaskuntza espezializatuetao ikasleen interesei eta itxaropenei erantzuteko, museoak proiektu bat ezarri zuen 2017/2018 ikasturtean, Espainiako modan espezializatutako irakaskuntza-zentroetarako. Lankidetzaprogramak museoaren ekintza-esparrua zabaldu nahi zuen, hezkuntza-maila handiagoan eta nazio-maila handiagoan. Horretarako, zentro-kopuru jakin bati eskusiboki eskainitako eta haietzat diseinatutako ekimen baten bidez, jostunaren ondare teknikoan sakontzea eta Balenciaga lepoa deritzona egiten ikastea proposatzen da. Izan ere, duela zenbait urte, museoak hutsune bat aurkitu zuen irakaskuntza espezializatuetao ikasleei egindako bisitaren osagarri ziren eta eskaripean ere egin zitezkeen prestakuntza-jardueren eskaintzan. Gabezia hori betetzeko asmoz, bisita-formula hau sortu zen: abian den erakusketara egindako bisitaz gain, ariketa praktikoko bat ere egitea diseinatzailearen ekarpen teknikoetan sakontzeko, dagokion publikoaren mailaren arabera eta horretarako sortutako hezkuntza-baliabideetan oinarritua.

Bisita-modalitate horretan parte hartzeko, museoaren eta eskola interesdunaren arteko lankidetzahitzarmen bat sinatzen da, eta eskolak konpromisoa hartzen du ondoz ondoko bi ikasturtetan egiteko. Orain arte, hauekin sinatu dira ildo horretako akordioak:

2017/2018 eta 2018/2019

- Bartzelonako Modako Diseinu Eskola LCI
- Istituto Europeo di Design, Madril
- Diseinu, Berrikuntza eta Teknologiako Unibertsitate Eskola, Madril
- INEDI Design School, Bilbo

2018/2019 eta 2019/2020

- CESINE Unibertsitate Zentroa, Santander

Lanean jarraitzen da beste eskola batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izateko, esaterako, ESDMGA, Diseinuko, Ehungintzako eta Modako Goi Mailako Eskolarekin eta ESDIR Errioxako Diseinuko Goi Mailako Eskolarekin .

Lehenengo urteko esperientziaren ondoren, 3 eskola hartu ditu bisitamota horretan (Bartzelonako Modako Diseinu Eskola, LCI, IED Madril. Instituto Europe di Design eta ESNE Diseinu, Berrikuntza eta Teknologiako Unibertsitate Eskola), eta guztira 68 ikaslek hartu dute parte. Planteamendua, hala egiturari nola edukiari dagokienez, zentro espezializatuen interesei dagokie, baina jarduera garatzeko epeak aski estuak dira. Izan ere, programak egun oso bateko dedikazioa eskatzen du museoan, eta, taldeek beste probintzia batzuetatik mugitu behar dutela eta hainbat egunetako irteerarik ez dutela kontuan hartuta, horrek batzuetan zaildu egiten du planteatutako ekintza osorik garatzea. Beraz, plangintza eta jarduerari bideratu beharreko denbora dira bisita-modalitate honen handicap nagusiak.



© Cristóbal Balenciaga Museoa/
Kyoto Seika University

Teknifikazioa: Museoa eta modaren profesionalak

Gertakari soziokulturala eta industrialaren aldetik, moda hertsiki lotuta dago komunikazioarekin, eta harekin elkartzen da garatzeko, bere helburu publikoak lortzeko eta, azkenik, kultura eta garai jakin baten adierazpen gisa eratzeko.

Elkarketa hori aldaketa sozial eta kulturalarekin batera bilakatzen da, biak txertatzen baitira hor, hala moda nola komunikazioa. Balenciaga jostunaren mugarrak modan zeuden bitartekoez baliatu ziren garai hartako gizartearekin lotzeko, eta, era berean, egungo moda-enpresek bat egin behar dute uneko komunikazio- eta sustapen-tresnarik eta -formaturik berritzaile eta eraginkorrenekin, balioak eta produktuak transmititzeko, eta, horrela, etengabe aldatzen eta hedatzen ari den merkatuan lehiatzeko.

Ikastaroa Kutxa Kultur Modarekin, Donostiako Sustapenarekin eta Yox Estudioko zuzendaritza elkartuarekin batera antolatu zen, eta museoan bertan egin zen, ekainaren 28an eta 29an. Modaren gaur egungo testuinguru soziokulturalera eta merkatura egokitutako komunikazio-estrategiarik aurreratuenak eta eraginkorrenak ezagutarazi, eta horietan sakondu nahi zuen. Testuinguru horri buruzko ikuspegi espezializatua eskaini zuen, eta funtsezko trebetasunak eman zituen kasu zehatzak aztertzeko, ekintza espezifikoak kontzeptualizatzeko eta horien gauzatzea eta emaitzak kudeatzeko.

Ikastaroak, besteak beste, helburu hauek zituen:

- Moda-komunikazioaren egungo testuinguruaren funtsezko alderdiak ezagutaraztea, diziplina anitzeko ikuspegi batetik –soziologikoa, kulturala eta bisuala–, adierazpen horren konplexutasunarekin bat etorrira.
- Moda-enpresa batek igor ditzakeen balioak kritikoki bereizteko gakoak ematea, eta metodoak bilatzea horiek aztertu, egokitu eta beren merkatu edo kontsumitzaile objektiboari modu eraginkorragoan jakinarazteko.
- Moda-komunikazioan parte hartzen duten prozesuei buruzko ezagutzak ematea –kontzeptuak sortzea, imajineria, ekintzak inprimatutako eta on line hedabideetan, ekitaldiak, etab.–, baita horien inguruan diharduten lanbide-arloei buruzkoak ere.

- Oinarrizko gaitasun teknikoak eta operazionalak erakustea, ikasturtean zehar garatutako oinarri teorikoei buruzko praktika baten bidez.

Ikastaroaren programa bi jardunalditan banatu zen, eta esparru-ponentziak eta hiru adituk nazioarteko bi hizlarik eta nazio-mailako batek emandako tailerra uztartu zituen. Tailerrean, eduki teorikoak, ikasketa-kasuen azterketa eta ariketa praktikoak landu ziren.

2018an, gainera, bi eskola magistral egin ziren. Lehenengo saioa, *Fantasiako goi-joskintzako tekniketara hurbiltzea* izenburupean, apirilaren 27tik 29ra bitartean egin zen, eta 20 orduko iraupena izan zuen. Saio guztietan, Balenciaga etxeetan erabiltzen ziren berariazko jostura-metodoen erakustaldiak egin ziren, fantasia-tailerren barruan, jantziak egiten baitziren egunekoak, jaiegunekoak eta andregai-jantziak. Bestalde, parte-hartzaileek gaitasun praktikoak har zitzaten, metodoak aplikatuta jantzi batzuk egitea proposatu zen. Besteak beste, kortselete edo bustier bat, gaueko soinekoak eraikitzeo oinarri gisa erabilia, eta gaueko soineko bat, drapeatzeko eta buloiekin apaintzeko teknikak landuz egina. Bietan, puntada-mota desberdinak ikasteaz gain, hainbat modu erabili ziren lisatzeko, ehunen eta jantzien arabera.

Bi eskola magistralk Kutxa Kultur Modaren, Rafael Matíasen eta Alfa Hogar-en laguntza izan zuten.

Aldi berean, publiko erdiprofesionalarentzako berariazko hezkuntza- eta bitartekaritza-baliabideak zabaltzeko asmoz, eta aurreko ekitaldietan hasitako bideari jarraituz, muntatu gabe zeuden bi grabazioak editatu dira 2018an. Alde batetik, mahuka japoniarra egiteko bideoa, eta goi-joskintzako tekniken mikrokapsulak. Funtsezko materiala da, Balenciaga Etxearen egiteko modua biltzeko, aztertzeo eta transmititzeo, eta museoko beste hezkuntza-programa batzuetan aplikatzen da.




© Cristóbal Balenciaga Museoa/Iñigo Ibáñez

Hona hemen sektore profesionalera bideratutako beste ekimen batzuk:

- *Jantzien erakusketa-euskarrien produkzioarako hastapenak* ikastaroa, azaroaren 14tik 18ra egina, jantzien euskarri museografikoen produkzioaren arloko aditu batek emana. Ikastaroaren eduki teorikoaren bidez, hurbilpen bat egiten zen jantzien erakusketa-euskarriak egiteko berariazko material eta tekniketara, eta horren garapen praktikoak neurrira egindako manikia egitea zuen helburu. Parte-hartzaile bakoitzak maniki bat egiten zuen, matrize batetik abiatuta, eraldaketak garatuz. Ikastaroa bost egunetan egituratu zen. Ekimenak Kutxa Kultur Modaren eta Donostiako Sustapenaren laguntza du.
- *Espezializazio-ikastaroa Work Experience Fashion-ekin* lankidetzan Ikastaro honetan, sistema zinetikoa delakoan sartu ziren parte-hartzaileak. Metodo horren bidez, hautsi egin nahi da diseinuaren ohiko ikusmoldea, hau da, gorputz-mugimendua eta patronajea elkarri erantzun eta elkarrekin harremanak izan behar dituzten bi elementu direla ulertu behar da. Izan ere, Rickard Lindqvist-en lanak patroi klasikoaren eredu alerno bat aztertzen du. Mugimendu gabeko gorputz baten matrize estatiko baten ordeztu, metodo zinetikoa gorputzaren hurbilketa batean oinarritzen da, balantze-lerroen eta puntu biomekanikoen bidez bistaratuta. Beraz, teknika honek jantzien eta gorputzen adierazpenari eta funtzionaltasunari erantzungo dioten alternatibak bilatzen ditu, esperimendu zehatzen bidez, eta eredu bizien gainean ehunen ebaketa eta modelaketa erabiliz.

© Cristóbal Balenciaga Museoa/Iñigo Ibáñez





Museoa, aukera kulturalako gunea

Epigrafe honetan sartzen dira museoak eskaintzen dituen edo lankidetzan egiten diren kultura-jarduera osagarri guztiak, besteak beste, edukia zabaltzeko eta museoa kultura-aukera gisa aprobetxatzeko dauden beste formula batzuk.

Jarduera horiek aldizka edo noizean behin egiten dira, berariazko programazio bati erantzuteko, aldi baterako erakusketekin, modari lotutako jarduerekin edo inguruko kultura-eragileek sustatutako beste kultura-jarduera batzuekin lotuta.

Kultura-programazioa

2018an, hainbat emanaldi eta antzezpen egin dira, tokiko beste eragile batzuekin batera antolatuta, musikaren eta dantzaren inguruan:

- KANTU-KONTARI (abuztua). Musika Hamabostaldiarekin batera, formatu txikiko ikuskizun bat antolatu zen, hain zuzen, ipuin-kontalari bat eta musika-akonpainamendu bat, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, musikaren eta ipuinen bidez entzuteko gaitasuna garatzeko xedez. Abuztuaren 17an egin zen eta 103 lagun izan ziren.
- KONTZERTUAK. Bi musika-emanaldi egin dira: Kutxa Fundazioarekin lankidetzan, azaltzen ari diren musikari gazteentzako eta herriko musikarientzako Kutxa Kultur Musika egoitza-programarekin egindako lankidetzaz hitzarmenaren barruan, Asier Beramendi kantautore donostiarrak modu akustikoan parte hartu zuen urriaren 13an. Gau irekia ekitaldiaren programan, eta Getariako San Salvador jaietako jardueren programaren barruan, 2018ko abuztuaren 3an, bigarren aldiz, uneko erakusketa gauez bisitatzea proposatu zen, eta Trizak hirukotearen zuzeneko musikarekin girotuta. Ekimen horren bidez, museoa arte-hizkuntza desberdinen arteko topaleku bihurtzen da, eta eraikinaren eta haren bildumen ezohiko ikuspegia eskaintzen die bisitariei.
- Orfeoi txikiaren emanaldia (abendua). Jostunen zaindaria den Santa Luzia eguna ospatzen hasi baino lehen, museoak familia arteko elkarketa bat proposatzen du abenduaren 1ean, jostuntza, musika eta tradizioen inguruan, belaunaldi desberdinen jakintza eta bizipenak gozatzerara eta partekatzerara animatzeko. Orfeoi txikiaren emanaldia izango da eguneko ekintza nagusia.

Beste agente batzuekin koordinatuta ere programa bereziak antolatu dira. Eduki bereziak eta irekitzeko ordutegi zabalak dituzte, batzuetan beren gaiarekin, eta beste batzuetan, orokorrak.

- Euskal Itsasaldeko Museoen Hilabetea. 2018an, Europako Ondarearen Urtean, museoak gogoeta egin zuten Getariako sortzaile ezagunaren ondarearen balioaz. Testuinguru horretan, museoak aukera paregabea eskaintzen zuten lan bat museoko gordailuan uzten denean aplikatzen den prozedura ezagutzeko, kontserbatzeko irizpideak eta, batez ere, bildumak erakusteko irizpideak zein diren jakiteko, bi bisitatan (bat gaztelaniaz, beste bat euskaraz), eta work in progress bisita eginez erakusketa-muntaketara, martxoaren 18an.
- Museoen Nazioarteko Eguna. Museoak ate irekien jardunaldia antolatu zuen maiatzaren 18an.
- Ondareari Buruzko Jardunaldiak. Ondarearen Nazioarteko Egunaren barruan, museoak *Moda eta ondarea* erakusketa bisitatzea proposatzen zuten azaroaren 16an, xx. mendearen lehen erdian emakumearen idealak izan duen bilakaeraren eta ondarea sortzen egin duen ekarpenaren ikuspegitik.



© San Sebastian Region

Planak eta esperientziak

Ikus-entzuleak handitzeko proposamenak abian jarri nahian, esperientzia konbinatu hauek sartu dira:


- *Getaria, formak eta zapoak*. Interes zabalagoak dituen jendearengana dibertsifikatzeko asmoz, pakete hau eskaintzen da, Getariako produktu tradizionalen jakintza bateratzen duena: kontserba-lantegia eta txakolin-upategia, museoarekin berarekin. Dastaketa barnean hartuta. Pakete honi esker, museoak harreman ona du bertako ekoizleekin, eta ondo onartu da; beraz, aukera gisa mantendu da, eta produktu horren komertzializazioa San Sebastián Region, Basquetour eta museoaren webgunearen beraren bidez zabaldu da.

- *Hiribilduko seme-alaben ondarea: Balenciaga eta Elkano*. Esperientzia honek aukera ematen du Cristóbal Balenciagari eta Juan Sebastian Elcanori lotutako kultura-ondarea eta haien figura ezagutzeko. Bisita gidatua, bai jostunari eskainitako zentrorra, bai Getariako alde zaharrera, bisitariak bertako pertsonalitateengana eta herriko paisaia kulturalera hurbiltzeko.

Lagapenak

Bestalde, beste batzuei lekua utzi zaie kultura-jarduerak edo modaren sustapenarekin zerikusia dutenak egiteko.

- San Anton, bertso-saioa (urtarrila). Getariako Udalak antolatutako, eta San Anton jaiekin batera, urteko bertso-saioa egin zen urtarrilaren 14an.
- Artzape Fest (apirilean). Artzape euskara taldeak antolatuta, Getariako Udalarekin lankidetzan, Artzape Fest-a egin zen, apirilaren 20an, Izaro, Nogen eta Marlik taldeen musika-emanaldien gaua.
- Antxoa Eguna (maiatza). Arrantzaleen kofradiak antolatuta eta Getariako Udalaren laguntzarekin, maiatzaren 4an Antxoa Eguna aurkeztu eta sariak banatu ziren, eta maiatzaren 5ean *Arxipelagoak* dantza- eta musika-ikuskitzuna egin zen.
- Elkanoren lehorreratzea. Getariako Udalak antolatuta, abuztuaren 7an, Elkanoren lehorreratzearen amaierako koktela egin zen museoan.
- ACMEko diseinatzaileen 4 desfile (maiatzean eta urrian). Grupo Diariok eta Donostiako Sustapenaren Donostia Moda Klusterrak antolatutako Gipuzkoa de Moda programaren barruan, 3 desfile egin ziren, Duyosen, Box San Sebastiánen, Teresa Helbig-en eta Sophie et Voilären eskutik, maiatzaren 3an eta urriaren 25ean.
- Kutxa Kultur Moda programako egoiliarren (5) desfilea (urria). Kutxa Fundazioaren Kutxa Kultur Moda programan dauden 5 egoiliarrek 2017/2018 ikasturtean egindako lanaren berri emateko, desfilea egin zen urriaren 26an, lanaren ondoriozko proiektuekin.
- Joskintzako ikastaroak. Gure Txeru elkarteak antolatuta, joskintzako ikastaroak egin dira udaberrian eta udazkenean.
- ELAN-Euskadi (urtarrila). ELAN-Euskadi elkarteak mahai-ingurua antolatu zuen urtarrilaren 24an, «Diru-sarrerak bermatzeko errenta: iragana, oraina eta geroa» izenburupean.
- Urteko programazioan, lagapen berezi bat azpimarratu behar da, deialdi irekian egin, tokiko diseinurako espazioa sortzen duena. Bertan, martxotik uztailean, eta abuztutik abendura bitartean, EAEN bizi diren 8 sortzaile aukeratu dituzte, beren modako osagarrien proposamenak erakusteko museoaren merkataritza-esparruan, zuzenean saltzeko aukerarekin. Informazio gehiago.



Komunikazioa

Nazioartean eragina handitu nahian

2018. urtean, Europako Ondarearen Urtean, Cristóbal Balenciaga Museoak gogoeta egin du Getariako sortzaile ezagunaren obrak duen ondare-balioaz. Izan ere, 1968an, duela 50 urte, Balenciagak erabaki zuen erretiroa hartzea, bere etxeak ixtea eta ibilbide profesionala eta sormen-zikloa bukatutzat ematea. Areto eta tailerren jarduera amaitzen den unetik, azken bilduma aurkezten denetik, Balenciagaren sorkuntzak beren balio materiala eta sinbolikoa gainditzeko hasten dira, hau da, berez iragankorra den modako janzkera ondare bihurtzen hasten da. Hala, lehen bilduma pribatuak sortzen eta mundu osoan erakusketa ugari antolatzen hasi ziren.

Testuinguru horretan, Cristóbal Balenciaga Museoak programazio bat aurkeztu du, jostunaren ondarearen alderdi hori azaltzeko eta gogoeta egiteko gaur egun duen indarrari eta legatuari buruz. Lortu nahi ditugun helburu orokorrek honako hauekin dute zerikusia:

- Museoaren bildumak duen garrantzia nazioartean ezagutaraztea eta mekanismoak lantzea jakintza hori bisita bihurtzeko.
- Museoaren izaera berezia eta Balenciagaren jatorriarekiko lotura nabarmentzea.

Helburu horiek orekatuta egon behar dute beti, museoak publiko espezializatuaren artean duen ospea lantzeko asmo estrategikoarekin: museoak, ikertzaileak, argitalpen zientifikoak. Horregatik, komunikatzeko aukerak eta edukiak oso zabalak izan daitezkeen arren, komunikazioaren arloan Balenciagaren balioen premisaren arabera jokatzeko da: koherentzia, selektiboa izatea, kalitate gorena lehenestea eta moda ez hutsaltzea, haren alderdi kulturalenaren alde eginez.

Gainera, museoaren diskurtso egonkor berriak baliagarria izan behar du Balenciagaren ikuspena, ezaugarriak eta balioak lurraldeari helarazteko, eta, orobat, Balenciagaren figura herritarrek onar eta beregana dezaten lantzeko. Komunikazioa, presentzia, herritarrek, bisitariak eta lurraldeko beste kultura-eragile batzuk inplikatzeko dituzten ekintzak izango dira helburu hori lortzeko mekanismorik garrantzitsuenak.

Zenbait komunikazio-gertaera:

- *New York Post*, *The Times*, *Der Tagesspiegel Kultur*, *Le Monde*-ren *Madame* aldizkaria eta *Harper's Bazaar* nazioarteko komunikabideek bisitatu dute museoa aurtan.
- Erreportaje nabarmenak hedabide nazionaletan, besteak beste, *El País Semanal*, *Vogue* eta RTVE-n.
- Urteko Pertsonaiaren Saria Cristóbal Balenciaga Museoarentzat, Unidad Editorial komunikazio-taldearen *Fuera de Serie-Expansión* aldizkariak emana.

Komunikazio tradizionala, datuak eta adierazleak

Egindako prentsaurrekoak eta aurkezpenak: 6

- Urteko programazioaren aurkezpena. Cristóbal Balenciaga Museoa 2018ko urtarrila.
- *Cristóbal Balenciaga. Moda eta ondarea* erakusketaren inaugurazioa. Cristóbal Balenciaga Museoa 2018ko martxoa.
- *Transmissions* proiektu eta erakusketaren aurkezpena. Cristóbal Balenciaga Museoa. 2018ko ekaina.
- Tokiko diseinuaren gunea aurkeztea. Cristóbal Balenciaga Museoa 2018ko uztaila.
- *Dotoretasuna. Moda argazkilaritzaren mende bat* erakusketaren inaugurazioa Cristóbal Balenciaga Museoa 2018ko urria.

Bidalitako prentsa-oharrak: 14.

Erantzundako Press Trip-ak: 10. Nabarmentzekoa da Espainiako eta nazioarteko hedabide hauetako kazetariak izan direla bisitan: *The Times*, *New York Post*, *Harper's Bazaar*, *El País Semanal*, *Vogue*, eta RTVE, besteak beste.

Zuzeneko erreferentzien gutxi gorabeherako kopurua: + 1.500.
Baloratutako eragina, gutxi gorabehera bi milioi euro.

Komunikazio digitala, datuak eta adierazleak

Komunikazio digitalari dagokionez, aurtan ahalegin handia egin da museoaren komunikazioko kanalak sendotzeko eta edukiak hobetzeko (webgunea, sare sozialak, buletinak eta app-a), museoaren posizionamendu digitalarekin aurrera egiteko.

Alde horretatik, museoa komunikazio digitaleko estrategia berrikusten ari da, edukien marketinaren, publizitatearen eta datuen analisiaren ikuspegitik.

Bidalitako newsletter-ak: 12
Bidalitako buletinak bereziak: 6
Facebook: 13.262 jarraitzaile
Twitter: 5.369 jarraitzaile
YouTube kanala: 2,5 mila bisualizazio
Webgunea: 88.869 bisita

Edukiak sortzea audientzia globalerako

Museoak bere eduki digitalak garatzen ditu ikusgaitasun global gehiago izateko, edukien marketinean lan egiteko eta Cristóbal Balenciagaren ondarea audientzia handiago eta globalizatuagoetara zabaltzeko.

GOOGLE ARTS & CULTURE-REN «WE WEAR CULTURE»

Googleren proiektuak 40 herrialdetik gorako 180 kultura-erakunderen lana biltzen du, eta modan adituak diren hainbat komisarioren eta diseinatzailearen laguntza du, baita mundu osoko unibertsitate, museo eta GKE-ena ere, moda gure kulturaren parte dela eta eragin handiko benetako artisau-lanaren emaitza dela erakusteko.

Cristóbal Balenciaga Museoak proiektuan parte hartzen du, moda-kultura sortzeko, Googleren teknologiaren laguntzarekin eta mundu osoan ospe handia duten instituzio garrantzitsuekin. Xede horrekin, lau istorio interaktibo sortu dira, Cristóbal Balenciagaren lana eta museo-zentroaren zeregina ikuspuntu desberdinetatik jorratzeko.

We wear culture erakusketa online dago eskuragarri g.co/wewearculture-n eta Google Arts & Culture aplikazioaren bidez iOS-en eta Android-en mundu guztiarentzat. 2018an, erakusketa guztiek 22.500 bisita izan dituzte.

SECOND CANVAS ERAKUSKETA BIRTUALEN

Museoak bere bilduma esploratzeko modu berrien alde egiten du, bereizmen handiko irudien bidez, eta erakusketen edukiari buruzko informazio zabalagoa duen storytelling bat erabiliz.

Second Canvasen teknologiari esker, gida digital bat sortu ahal izan dugu *Cristóbal Balenciaga. Moda eta Ondarea* erakusketarako. 2018ko martxoan abian jarri zenetik, 27.000 bisita inguru izan dira aretoan, aurkeztutako lau edukietan.

Erakusketa Second Canvas aplikazioaren bidez dago ikusgai, iOS-en eta Android-en mundu guztiarentzat.

GURE ONDAREA DIGITALIZATZEA

Teknologia interaktibitatea errazten ari da, digitalizazioen bidez, aukera ematen baitigute pieza baten xehetasunak (megapixela), 360º-ko ikusmena, haren eraikuntza teknikoari buruzko infografiak eta abar behatzeko.

2018an, museoaren bildumako 10 pieza digitalizatu dira, eta ikus-entzunezko edukiak sortu dira *Cristóbal Balenciaga. Moda eta Ondarea* erakusketa eta *Transmissions. Fashion and Heritage* hezkuntza-proiektua ezagutzera emateko, eta, horrez gain, argazkiak atera dizkiegu gure bildumako hogeit bat piezari.



Informazio ekonomikoa

Cristóbal Balenciaga Fundazioak, aldi honetan, 492.000 euroko zuzeneko gastua eta 349.000 euroko zeharkako gastua langile eta komunikazioan zuzendu du, memoria honetan deskribatutako programazioa egiteko; oro har, aurreko ekitaldian programaziorako erabilitakoa baino % 23 gehiago.

Aurrekontu horretatik, % 65 erakusketetarako erabili da, % 25 hezkuntzarako eta % 10 beste kultura-jarduera batzuetarako.

Programa honi eskainitakoa Fundazioak museoari eskaintzen dion guztizko aurrekontuaren % 33 da; izan ere, aurrekontuaren gainerako kopurua museoaren funtzionamenduari eta zerbitzuei lotutako egiturako eta inbertsioko beharrei bideratzen zaie.

Fundazioaren patronatua osatzen duten erakunde publikoen ekarpenek finantzatuko dute aurrekontu honen % 76; bestetik, % 23 erakundeak sortutako diru-sarreretatik dator, eta gainerako % 1a, babesei eta ekarpenei dagokie.

Gardentasuna

2014az geroztik, Fundazioak informazio ekonomikoa argitaratzen du, gardentasuna eta jendearekiko harremana hobetzeko. Honako hau informazio ekonomiko nagusien laburpena den arren, Fundazioaren urteko kontuak haren egoitzan kontsulta daitezke, hala eskatuta.

Egoera-balantze laburtua

ACTIVO	2018	2017
A OHIKO AKTIBOA	13.985.382	14.516.639
I. IBILGETU UKIEZINAK	5.357.367	5.785.851
II. ONDARE-ONDASUNAK	6.610.743	6.465.463
III. IBILGETU MATERIALA	2.017.272	2.265.325
B EZOHICO AKTIBOA	363.932	456.737
II. IZAKINAK	21.341	
IV. MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	110.186	51.558
Salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak	7.686	11.558
Beste zordun batzuk	102.500	40.000
VII. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	13.390	10.014
VIII. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	219.015	395.165
AKTIBOA, GUZTIRA (A+B)	14.349.314	14.973.376

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
A ONDARE GARBIA	13.692.770	14.184.370
A-1 FUNTS PROPIOAK	1.014.203	979.694
I. SORTZE-ZUZKIDURA	1.251.343	1.251.343
III. AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKIN NEGATIBOA	(271.649)	(311.439)
IV. EKITALDIKO SOBERAKINA (POSITIBOA EDO NEGATIBOA)	34.509	39.789
A-3 JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	12.678.567	13.204.676
B EZOHICO ONDARE PASIBOA	4.714	93.750
II. EPE LUZEKO ZORRAK	4.714	93.750
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak		93.750
2. Epe luzeko beste zor batzuk	4.714	
C OHIKO ONDARE PASIBOA	651.830	695.257
III. EPE LABURREKO ZORRAK	101.706	102.335
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	100.202	95.443
2. Epe laburreko beste zor batzuk	1.504	6.892
VI. MERKATARITZA-HARTZEKODUNAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK	550.124	592.922
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+B+C)	14.349.314	15.585.380

Emitza-kontu laburtua

DESKRIBAPENA	2018	2017
ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. ERAKUNDEAREN DIRU-SARRERAK BERE JARDUERAGATIK	1.646.412	1.511.806
a. Bazkide eta afiliatuen kuotak	5.860	5.220
b. Erabiltzaileen ekarpenak	326.582	323.116
c. Promozioen, babesleen eta lankidetzen diru-sarrerak	80.250	19.750
d. Ekitaldiaren emaitzari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.233.720	1.163.720
3. SALMENTAK ETA BESTE OHIKO DIRU-SARRERA BATZUK MERKATARITZAKO JARDUERA	79.482	55.113
6. HORNIKUNTZAK	7.444.97	
7. USTIAPENeko BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	28.178	22.775
8. LANGILEEN GASTUAK	282.949	272.284
9. USTIAPENeko BESTE GASTU BATZUK	1.397.329	1.248.433
10. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	896.699	964.164
11. EKITALDIAREN EMAITZARI TRANSFERITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINZAK ETA LEGATUAK	865.384	935.556
14. BESTE EMAITZA BATZUK	2.759	3.023
A JARDUERAREN SOBERAKINA	37.790	43.392
16. FINANTZA-SARRERAK	3.281	3.673
18. FINANTZA-GASTUAK		70
B ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	3.281	3.603
C ZERGA AURREKO SOBERAKINA (A+B)	34.509	39.789
D RESULTADO DEL EJERCICIO	34.509	39.789
E SOBERAKINEAN ONARTUTAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA	34.509	39.789
21. ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUAK	339.275	232.516
Jasotako dirulaguntzak	339.275	232.516
22. EKITALDIAREN SOBERAKINAREN BIRSAILKAPENAK	865.384	935.556
Emitzei egotzitako diru-laguntzak	865.384	935.556
F ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK, ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUEGATIK	526.109	703.040
G EKITALDIKO SOBERAKINA	491.600	663.251

Aurrekontuaren likidazioa

GASTUAK/INBERTSIOAK (BEREZO JARDUERA)	ZENBATEKOA		
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA	DIFERENTZIA
Laguntza-gastuak eta beste batzuk			
a) Diru-laguntzak			
b) Diruaz bestelako laguntzak			
c) Kolaborazioagatiko eta gobernu organoen gastuak			
d) Diru-laguntzak itzultzea			
Produktu amaituen eta fabrikatzen ari direnen izakinetako aldakuntza			
Hornidurak		7.445	-7.445
Langile-gastuak	273.000	232.950	-9.950
Jardueraren beste gastu batzuk	1.253.750	1.397.330	-133.580
Ibilgetuaren amortizazioa	905.000	896.700	8.300
Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza			
Finantza-gastuak	4.500	3.281	1.219
Finantza-tresnen arazoizko balioaren aldakuntzak			
Kanbio diferentziak			
Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza			
Mozkinen gaineko zergak			
Gastuen guztizko partziala	2.446.250	2.587.706	-141.456
Ibilgetu-erosketak (ondare historikoko ondasunak izan ezik)	70.000	104.783	-34.783
Ondare historikoko ondasunen erosketak		11.384	-11.384
Merkataritzakoak ez diren zorrak kitatzea	93.750	93.750	
Bitartekoen guztizko partziala	153.750	209.917	-46.157
GUZTIRA	2.610.000	2.797.623	-187.623

DIRU-SARRERAK	ZENBATEKOA		
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA	DIFERENTZIA
Ondarearen ondoriozko errentak eta beste diru-sarrera batzuk	877.000	865.384	11.616
Berezko jardueren salmentak eta zerbitzuak ematea	330.000	332.442	-2.442
Merkataritzako jardueren diru-sarrera arruntak	63.000	79.482	-16.482
Sektore publikoko diru-laguntzak	1.230.000	1.233.720	-3.720
Ekarpen pribatuak (babesletza eta bazkide-kuotak)	25.000	80.250	-55.250
Beste diru-sarrera mota batzuk.	15.000	30.937	-15.937
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	2.540.000	2.622.215	-82.215

DIRU-SARRERAK	ZENBATEKOA		
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA	DIFERENTZIA
Egindako zorrak			
Bereganatutako beste betebeharrak finantzario batzuk			
Kapitaleko diru-laguntzak	70.000	90.000	-20.000
LORTUTAKO BESTE BALIABIDE BATZUK, GUZTIRA	70.000	90.000	-20.000

**INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS EMITIDO POR UN
AUDITOR INDEPENDIENTE**

A La Junta del Patronato de FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA, que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2018, la cuenta de resultados abreviada y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA., al 31 de diciembre de 2018, así como del excedente de sus operaciones correspondiente al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales de nuestro informe.

Somos independientes de FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida. Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstos, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Hemos determinado que no existen riesgos más significativos considerados en la auditoría que se deban comunicar en nuestro informe.

Otra información

La otra información comprende un desarrollo más detallado de las actividades fundacionales, que consiste en explicaciones detalladas que el Presidente y el Órgano de Gobierno de la entidad consideran oportunas sobre las de actividades fundacionales, llevadas a cabo por la entidad durante el ejercicio y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene la citada memoria de actividades concuerda con las de las cuentas anuales del ejercicio 2018. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación de la memoria de actividades con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Entidad.

Responsabilidad del Presidente del Patronato de la Entidad en relación con las cuentas anuales abreviadas

El Presidente es responsable de la formulación de las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que considere necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales abreviadas, el Presidente es responsable de la valoración de la capacidad del FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA para continuar como entidad en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la entidad en funcionamiento y utilizando el principio contable de entidad en funcionamiento excepto si el Patronato tiene intención de liquidar la entidad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión. Seguridad razonable es un alto grado de seguridad pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de auditoría vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.*
- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.*
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Presidente.*
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Presidente de la entidad del principio contable de entidad en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA para continuar como entidad en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que*

expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA deje de ser una entidad en funcionamiento.

- *Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, abreviadas incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.*

Nos comunicamos con el Patronato de la Fundación en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación al Patronato de la Fundación, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Dada la consideración de inexistencia de riesgos significativos, según se ha señalado en el apartado anterior, no procede su descripción en nuestro informe de auditoría.

SAYMA AUDITORES

Fdo.: Andoni Arzallus Mendiluce


(ROAC 09346)

San Sebastián, a 22 de mayo de 2019.

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.cristobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia / San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18'6.92" N
2° 12' 18.77" W



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

